

2016-2017

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola



# HAUR HEZKUNTZA GRADUA KOMUNIKAZIO LANABESAK MODULUA

*Komunikazio Gaitasunaren Garapena (Euskara eta Gaztelania): Miren Koro Jauregi, Jone Guembelzu*

*Hurtzaroaren Psikologia: Lorea Azpiazu*

*Ikastetxearen Antolakuntza: Nahia Intxausti*

*Koordinatzailea: Nahia Intxausti*

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	3
2. Konpetentziak.....	3
3. Ikas taldeen egitura .....	4
4. Lan gidatua .....	4
5. Kronograma .....	7
6. Ebaluazioa.....	8
7. Eranskinak.....	11

## 1. SARRERA

Gida honen bidez Haur Hezkuntzako 2. mailako lehen seihilekoan burutu behar den modulu-lana aurkezten da. Lan hau Haur Hezkuntzako Graduan burutuko diren 5 modulu-lanen artean hirugarrena da eta Komunikazio Lanabesak izena du. Lehen seihilekoan dauden ikasgai guztiek osatzen dute modulu-lan hau: Haurtzaroaren Psikologia, Komunikazio Gaitasunaren Garapena eta Ikastetxearen Antolakuntza. Lan honen helburua Haur Hezkuntzako baliabide didaktikoa den jolas bilduma hezitzailea sortzea izango da. Ondorengo lerroetan jasotzen dira hau burutzeko beharrezko orientabideak.

## 2. KOMPETENTZIAK

Modulu-lanean lantzen diren Haur Hezkuntzako graduako kompetentzia orokorrak:

<b>G001</b>	Haur Hezkuntzaren helburuak, curriculum-edukiak eta ebaluaketa-irizpideak ezagutzea, horien berezitasun epistemologikoa eta horien didaktikaren berariazkotasuna ulertuz, baita diziplinen arteko harremana ere, neska-mutilen lana prestatzeko, antolatzeko eta ebaluatzeko.
<b>G006</b>	Lehen haurtzaroan hizkuntzaren bilakaera ezagutzea, egon litezkeen disfuntzioak identifikatzen jakitea eta horiek egoki garatu daitezela zaintzea. Kultura anitzeko eta hizkuntza anitzeko testuinguruetan hizkuntzak ikasteko egoerak eraginkortasunez aztertzea. Ahoz nahiz idatziz espresatzea eta espresatzeko teknika desberdinen erabilpena menderatzea. Euskara eta gaztelania eta, gutxienez, atzerriko beste hizkuntza bat menderatzea, hizkuntza egoki eta zuzen sortzeko eta ulertzeko gaitasuna frogatuz –C1 eta B1 mailak, hurrenez hurren– bere lanbidea hizkuntza anitzeko hezkuntza-testuinguru batean gauzatu ahal izateko, baina betiere, hizkuntzen nahiz kulturen dibertsitatea errespetatzeko jokabideak garatuz.
<b>G007</b>	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta, bereziki, telebistak lehen haurtzaroan dituzten hezkuntza-ondorioak ezagutzea. Informaziorako eta komunikaziorako hedabide desberdinak modu kritikoan erabiltzea (IKTak, liburutegiak, fonotekak...), ezagutza-iturriak eskuratu ahal izateko eta komunikazio-lanak, ikaskuntza, ikerketa eta lankidetzaren bidezko lana sustatzeko.
<b>G011</b>	Maila honetako irakasle guztiak jarduerak elkarlanean planifikatzea. Irakaskuntza-lana eta jarduera profesionala berritzeko eta hobetzeko ikasgelan egiten diren praktiken inguruan taldean gogoeta egitea. Ikaskuntza autonomorako eta lankidetzazkorako ohiturak eta trebetasunak eskuratzea eta ikasleen artean hori sustatzea.

<b>G012</b>	Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako profesionali eragiten dieten oinarritzko konpetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza-prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun eman ahal izango diena. Kalitatea hobetzearren hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea.
<b>G013</b>	Ikerketatik abiatuta hezkuntzak dituen kontzepzioak aztertzea eta balioestea, baita Hezkuntza Administrazioaren curriculum-proposamenak ere, hezkuntza-proiektuak eta programazio-unitateak diseinatu eta garatzeko, curriculum-a testuinguru soziokultural aldakorretara egokitzea ahalbidetuko baitu horrek.
<b>G014</b>	Epealdi honetan neska-mutilen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.
<b>G015</b>	Komunikazio-konpetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.

Modulu-lanaren konpetentziak eta Haur Hezkuntza graduko konpetentziekin duten lotura:

1. Informazioa bilatu hainbat eratako jolasei buruz taldean, informazio iturri fidagarri eta anitzetan oinarrituz (liburuak, aldizkari akademikoak, web orriak). (G007).
2. Marko teoriko batean oinarrituz, jolas bilduma bat diseinatzea bai egokitzapenez edota sormenez hainbat hezkuntza helbururi begira eta diziplinartekotasuna kontuan izanik. (G001, G012, G013).
3. Jolasen garrantzia haurren hezkuntzan eta garapenean ezagutu eta balioetsi eta hobekuntzak proposatzea taldean eta eremu teorikotik jasotako irizpideen arabera. (G012, G013, G014).
4. Jolasen talde-ekoizpen prozesuan taldearen funtzionamendua kudeatzea arduraz (talde lana planifikatu, bileren aktak bete, egin beharreko lanak osatu eta epean entregatu, lanaren aurkezpenetan kide guztiek parte hartu, eta abar). (G011).
5. Jolasei buruzko diziplinarteko idazlanak aurreikusenez planifikatu (lanaren zirriborroak) eta azken txostena egin testuaren zulentasuna, egokitasuna, antolaketa eta APA arauen irizpideak kontuan izanik. (G006, G011, G015)
6. Haur hezkuntzako ikaskideekin jolas egin, askatasun eta konfiantza giroan, zeregin horretarako beharrezkoak diren bildutako jolasei buruzko ahozko azalpenak emanaz eta hausnarketa suspertuz. (G011, G015)

### 3. IKASLE TALDEEN EGITURA

Ikasleek taldeak osatu beharko dituzte. Taldeen ezaugarriak ondorengoak izango dira:

- Taldekideen kopurua 5koa izango da.
- Taldekideek 1 eranskinean dagoen fitxa bete beharko dute irailaren 19rako. Moduluko koordinatzaileari entregatuko diote. Talde bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Taldekideak konprometitzen dira talde lanetan modu aktiboan parte hartzen.

*Oharra:* seihileko honetan ikasgai bakar batean matrikulatua egonez gero, ez da derrigorrezkoa izango moduluko lana egitea. Haurtzaroaren psikologia baliokidetua dutenek moduluan parte hartu beharko dute. Talde bakoitzean ezin izango da Haurtzaroaren psikologia baliokidetua dute hiru pertsona baino gehiago.

### 4. LAN GIDATUA

Moduluko lanaren azken emaitzak ondorengoak izango dira:

#### 4.1. JOLASEN BILDUMA HEZITZAILEA

1. Jolasei buruzko bilduma hezitzaile bat egin beharko da gai monografiko baten inguruan. Bilduma egiteko gai monografikoak ondorengo hauetako bat izan daiteke:
  - Adimen anitzak sustatzeko jolasak (adimen musikala, logiko-matematika ...)
  - Arreta eta oroimena sustatzeko jolasak (behaketa jolasak ...)
  - Sormena sustatzeko jolasak (dramatizazioa, ahozkoa, grafikoa, eraikuntzarako sormena...)
  - Garapen sozio-emozionala sustatzeko jolasak (ezagutze, konfiantza, erlaxazio jolasak...)
  - Hizkuntza lantzeko jolasak (aho-korapiloak, olerkitxoak...)
  - Jolas kooperatiboak (lankidetzak, komunikazioa bultzatzeko jolasak...)
  - Galzorian dauden jolasak (familiar ezagutzen direnak...)
  - Multimedia jolasak (on-line jolasak, DVDak...)
  - Aniztasuna lantzeko jolasak (familia aniztasuna, genero aniztasuna, kultura aniztasuna...)
  - Eskulan jolasak (material birziklatuekin eginak)
  - Zentzumenen bidezko hautematea lantzeko jolasak (ur-jolasak, zentzumen-jolasak, itzal-jolasak...)

- Abesti jolasak
- Eta abar

Gai bakoitzean gehienez ere bi talde aritu ahalko dira. Gai bera interesatzen zaien bi talde baino gehiago balego, zozketa bidez erabakiko da zein bi talde izango diren gai hori jorratuko dutenak.

2. Jolasen bildumaren formatua: APAren estilo liburuari jarraiki egingo da bilduma eta lana amaitzean ale bat entregatuko da koadernatua.
3. Jolasen bildumak izan behar dituen atalak:
  - 3.1. Portada
  - 3.2. Aurkibidea (aurkibidearen barruan jolasen aurkibidea ere adieraziko da, jolas bakoitzaren izenburua eta berau dagoen orria adieraziko delarik).
  - 3.3. Sarrera/aurkezpena
  - 3.4. Bildumaren helburuak
  - 3.5. Norentzat diseinatu izan den bilduma (HH-ko zein zikloko haurrak). Adin horri dagozkion ezaugarri orokorrak ere adieraziko dira.
  - 3.6. Atal teoriko laburra: jolasaren definizioa, jolasaren garrantzia eta funtzioak, eta bildumarako hautatutako gaiari buruzko teoria apur bat.
  - 3.7. Atal praktikoa: jolas bilduma hau ikastetxe batean martxan jarri beharko balitz ikastetxe horretako plangintza dokumentuetan jaso beharko litzatekeena adierazi: hezkuntza proiektuan zer azalduko litzatekeen eta urteko planean; jolasak burutzeko ikastetxe horretan zein nolako baliabideen beharra aurreikusten den: giza baliabideak (profesionalak, ikasleen taldekatzeak), baliabide materialak (materialak eta espazioaren antolaketa).
  - 3.8. Jolas bildumak 15 jolas barne hartu behar ditu. Talde bakoitzak erabakiko du, hala behar den kasuetan, bildumako jolasak zein azpi-ataletan antolatu eta zein irizpideren arabera (adibidez, haurren adinaren arabera, jolasak behar dituen materialen arabera, etab.). Bildumako 5 jolasetan gutxienez familiaren parte hartzea bermatuko da.
  - 3.9. Jolas bakoitza deskribatzerako orduan jolasen fitxak proposatzen duen gidoia jarraituko da.

<b>JOLASEN FITXA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Jolasaren izena</b></li> <li>- <b>Iturria (nondik lortu den jolasa)</b></li> <li>- <b>Helburuak</b></li> <li>- <b>Haurren adina</b></li> <li>- <b>Partaide kopurua</b></li> <li>- <b>Baliabideak: giza baliabideak(zein irakasle, ikasleen taldekatzeak) eta baliabide materialak (espazio antolaketa eta materialak)</b></li> <li>- <b>Deskribapena</b></li> </ul>

- Eztabaida (jolastu ondoren hurrekin jolasari buruzko hausnarketa bideratzeko proposatzen diren galderak)
- Jolasa praktikan jarri ondoren talde-hausnarketa (adinari egokitua dagoen, garapeneko zein alderdi jorratu den, ikasleen taldekatzea , materiala eta espazio antolaketa egokia den, irakaslearen komunikazio gaitasuna egokia den , espero ziren helburuak bete diren, egin daitezkeen moldaerak, eta abar)
- Jolasaren argazkia/marrazkia

*\*Oharra: jolasak praktikan jarri aurretik familiei informazio eskutitza bidali. Ahal dela 15 jolasak jarriko dira praktikan eskolako praktikaldi garaian, gutxienez 10 jolas behintzat praktikan jartzea. Praktikaldia da unerik egokiena horretarako baina praktikaldia egin beharrik ez dutenek ere inguruan dituzten hurrekin egingo dute jolasa.*

- 3.10. Gogoeta atala: bildumaren helburuen ebaluaketa, bildumaren eraikuntza prozesuaren deskribapena, ikasgai desberdinetan honi lotuta egindako lan teorikotik ateratako ondorioak, talde-hausnarketa (moduluko lan hau egitean ezer berria ikasi den, lana egiteko topatu diren erraztasun eta zailtasunak, lanaren erabilgarritasuna, familien erantzunaren egokitasuna eta abar) eta taldekide bakoitzaren hausnarketa pertsonala (gehienez 10 lerro pertsonako).
- 3.11. Erreferentziak: bilduman zehar aipatu diren autoreen erreferentziak txertatuko dira APA arauak jarraituz.

## 4.2. MODULUKO GIDA IRAKURRI ETA AKTA ORRIAK BETE

Ikasleek Hautzaroaren Psikologia ikasgaiaren bigarren saiorako moduluko gida irakurrita ekarri beharko dute, eta saio horretan sortutako zalantzak argituko dira.

Modulu lana burutzeko egiten diren bilera bakoitzeko akta bat beteko du talde bakoitzak (ikus 2 eranskina) eta horiek bildumako eranskinetan erantsiko dira, erreferentzien atzetik.

## 4.3. LANAREN LEHEN ZIRRIBORROA ETA ESKUTITZA EREDUAK

Ikasle taldeek 2 lan entregatu beharko dituzte kronograman adierazten den datarako: pare bat foliotako lanaren lehen zirriborro bat eta bi eskutitza eredu.

1. Lanaren lehen zirriborroa: jolas bilduman zehaztuko den informazioaren berri emango da labor-labor: bildumaren gaia, taldean sortzen diren galderak (zer dakizue gaiari buruz eta zer jakin nahi duzue, zein galdera sortzen zaizkizue hasiera batean...), helburuak, zein adineko haurrentzat izango den, zein azalpen teoriko emango diren, zein azpi-atal izango dituen bildumak, eta, azkenik, jolasen bilduma eraikitze erabiliko diren 3 liburu, 3 artikulua eta 3 webguneren erreferentziak aipatuko dira. Erreferentziak APA arauen arabera izendatuak egongo dira. Lan hau Hautzaroaren Psikologia eta Ikastetxearen Antolakuntzako irakasleei entregatuko zaie inprimatuta.
2. Eskolan egingo den jolasaren jardueraren berri emanez irakasleari eta familiari eskutitza eredu idatziko da. Lan hau Komunikazio Gaitasunen Garapena ikasgaiko irakasleari entregatuko zaio.

#### 4.4. LANAREN BIGARREN ZIRIBORROA

1. Bilduma osoaren zirriborria (edo ordu arte egin den lan guztiaren zirriborria) erakutsi irakasle guztiei horiek lanari dagokion feedback-a emateko.
2. Bigarren zirriborria pare bat klase praktikoetan begiratuko du irakasle bakoitzak, taldez talde joango da zirriborroak ikusten ikasleek ekarritako ordenagailu portatiletan gainbegirada bat boteaz lan bakoitzari.

#### 4.5. BILDUMAKO JOLAS BAT PRAKTIKAN JARRI IKASKIDEEKIN (aurkezpena)

1. Aurkezpen egunean gauzatuko den jolasa moduluko irakasle tutorearekin batera hautatuko da (aurkezpenetan jolas berak errepikatu ez daitezten).
2. Irakasleen eskolako psikomotrizitate gelan egingo da.
3. Talde bakoitzak 15 minutu izango ditu eraiki duten jolasen bildumako jolas bat ikaskideei azaldu eta hauekin praktikan jartzeko. Jolasa praktikan jarri aurretik, hautatutako jolas mota eta honen ezaugarriak eta hautatutako jolasaren zergatia adieraziko dituzte. Ondoren jolasa praktikan jarriko dute horretarako behar diren boluntarioak eskatuz. Ondoren gogoeta burutuko da.
4. Aurkezpen saioetara ikasle guztiak etorri beharko dira. Jolasaren prestaketan, aurkezpenean, garapenean eta hausnarketan talde kide guztiek parte hartu beharko dute. Taldekideek parte hartuko dute jolastu ahal izateko material guztiak ekartzen eta antolatzen, jolasari buruzko ahozko azalpenak ematen edo ahozko azalpenak eman bitartean jolasa eszenifikatzen, ikaskideek ongi jolasten dutela gainbegiratzen, jolasa amaitu ondoren hausnarketa gune bat zuzentzen, jolasean erabilitako materialak bere lekuan gordetzen direla ziurtatzen, etab.

#### 4.6. LANAREN ENTREGA

Lana beranduenez abenduaren 16an, ostiralean, entregatuko da, eguerdiko 12:00ak baino lehenago. **Paperean** entregatu beharko dira **2 kopia eta nahi izanez gero txuri beltzean**. Letra mota Arial eta bere tamaina 11koa izango da, paragrafoa, berriz, lerroarteko bakuna. Margenak justifikatuak egongo dira.

Hurtzaroaren Psikologia ikasgaiko irakasleari entregatuko zaio.

#### 5. KRONOGRAMA

Egitekoak	Data	Nori
Talde fitxa entregatu (abizenak alfabetikoki ordenatu fitxan)	Irailak 19	Ikastetxearen antolakuntzako irakasleari
1. Zirriborroaren eskema osatu	Irailak 19-23 astea	1.Komunikazio



2. Bi eskutitz ereduak landu.		Gaitasunaren Garapena 2.Haurtzaroaren Psikologia
1. Lanaren lehen zirriborroa entregatu (buzoian utzi ez baduzue egun horretan irakaslearekin klaserik) 2. Bi eskutitza ereduak entregatu.	Urriak 6	1. Ikastetxearen antolakuntzako eta Haurtzaroaren psikologiako irakasleei  2. Komunikazio Gaitasunaren Garapeneko irakasleari
Lanaren lehen zirriborroaren feedbacka itzuli Ikastetxearen Antolakuntza eta Haurtzaroaren Psikologiako eskola orduetan.	Urriak 10-14 artean	Ikasleei
Lanaren bigarren zirriborroa erakutsi eta irakasleek feedbacka eman	Azaroak 28- abenduak 2 artean	Irakasle guztiei eta ikasleei
Bildumako jolas bat aukeratu ikaskideekin praktikan jartzeko aurkezpen egunean	Abenduak 5-9	Ikaste. antolakuntzako irakasleari
Bildumako jolas bat praktikan jarri ikaskideekin (aurkezpena)	Abenduak 12-13	Ikasle eta irakasle guztiak
Bilduma entregatzeko azken eguna	Abenduak 16	Ikastet. antolakuntzako irakasleari

## 6. EBALUAZIOA

- Lan idatzia bi irakasleek ebaluatuko dute. Aurkezpenean hiru irakasleak egongo dira ebaluatzen.
- Haurtzaroaren Psikologia irakasgaiak 1,2 kreditu ECTS<sup>1</sup> eskainiko dizkie proiektuari, Ikastetxearen antolakuntza irakasgaiak 0,9 kreditu ECTS eta Komunikazio Gaitasunaren Garapena irakasgaiak 0,7 kreditu ECTS.
- Haurtzaroaren psikologia eta Ikastetxearen antolakuntza irasgaietan moduluko lanari emango zaion balioa %20ekoa izango da. Komunikazio-gaitasunaren garapena irasgaietan berriz %10eko balioa izango du.
- Irasgai guztien ikuspegiak kontuan izanik baloratuko da moduluko lana.
- Haurtzaroaren psikologia eta Ikastetxearen antolakuntza irasgaietan prozesuak eta aurkezpenak 0,5 puntu balioko ditu, eta lan idatziak puntu 1.

<sup>1</sup> Kreditu ECTS bakoitzeko 10 ordu aurrez aurrekoak eta 15 ez aurrez aurrekoak dira.

- Komunikazio-gaitasunaren garapena ikasgaiaren prozesuak 0,2 puntu balioko ditu, lan idatziak 0,4 eta aurkezpenak 0,4 puntu.
- Beharrezkoa da modulu-lana gainditzea ikasgaiaren gainditzeko.

Ondorengoak dira moduluko lana ebaluatzeko erabiliko diren errubrikak:

PROZESUA	Bikaina	Oso ona	Ona	Nahikoa	Hobetzekoa
<b>4 KONPETENTZIA: Jolasen talde-ekoizpen prozesuan taldearen funtzionamendua kudeatzea arduraz (talde lana planifikatu, bileren aktak bete, egin beharreko lanak osatu eta epean entregatu, lanaren aurkezpenetan kide guztiek parte hartu, eta abar).</b>					
Talde lana denen artean banatzen dute.					
Bileren aktak egiten dituzte.					
Egin beharreko lanak epe barruan entregatu dituzte (lanaren bi zirriborroak eta bilduma bera) eta zirriborroak egoki burutu dira.					
Jolasaren aurkezpenean kide guztiek parte hartu dute.					
<b>LAN IDATZIA</b>					
<b>1 KONPETENTZIA: Informazioa bilatu hainbat eratako jolasei buruz taldean, informazio iturri fidagarri eta anitzetan oinarrituz (liburuak, aldizkari akademikoak, web orriak).</b>					
Datu- base akademikoak erabiltzen dituzte arlo teoriko eta praktikorako.					
Datu base akademikoetatik marko teorikorako gutxienez 5 iturri erabili dira.					
Jolasen aukeraketa egiteko gutxienez 4 iturri erabili dira.					
<b>2 KONPETENTZIA: Marko teoriko batean oinarrituz, jolas bilduma bat diseinatzea bai egokitzapenez edota sormenez hainbat</b>					

<b>hezkuntza helbururi begira eta diziplinartekotasuna kontuan izanik.</b>					
Jolasen bilduman modulua osatzen duten hiru diziplinak agertzen dira.					
Jolas bilduma helburu jakin batzuekin lotzen dute.					
Proposatutako jolasak helburu eta adin tartera egokituak daude aldaerak proposatuz edo jolas berriak sortuz.					
<b>3 KONPETENTZIA: Jolasen garrantzia haurren hezkuntzan eta garapenean ezagutu eta balioetsi eta hobekuntzak proposatzea taldean eta eremu teorikotik jasotako irizpideen arabera.</b>					
Jolasak haurren hezkuntzan eta garapenean duen garrantzia ezagutu eta balioesteko irizpideak argi dituzte.					
Praktikan jarritako jolasei moldaerak eta hobekuntzak eranstean dizkiete.					
<b>5 KONPETENTZIA: Jolasei buruzko diziplinarteko idazlanak aurreikuspenez planifikatu (lanaren zirriborroak) eta azken txostena egin testuaren zuzentasuna, egokitasuna, antolaketa eta APA arauen irizpideak kontuan izanik.</b>					
Formulatutako helburuekin bat datorren lana egin da.					
Testuaren antolaketa: lan idatziaren atalak argi dituzte.					
Testuaren koherentzia: atalen eta paragrafoen arteko loturak egokiak dira.					
APA arauak jarraitzen dituzte.					
Testuaren egokitasuna: dagokion erregistroan egin da lana, irakurterraza da, ideiak argi eta garbi adierazten dira eta haurtzaroko hezkuntzaren hiztegia erabiltzen dute.					

<b>AURKEZPENA</b>					
<b>6 KONPETENTZIA:</b> Haur hezkuntzako ikaskideekin jolas egin, askatasun eta konfiantza giroan, zeregin horretarako beharrezkoak diren bildutako jolasei buruzko ahozko azalpenak emanaz eta hausnarketa suspertuz.					
Jolasa aurkezten duen taldea jolasean bete-betean sartzen da.					
Jolasari buruzko iritzia ematen dute.					
Kideen artean solasaldia sortzen ahalegintzen dira.					
Jolasa ahoz argi deskribatu dute.					

**7. ERANSKINAK:** akta orria, argazkiak ateratzeko baimena orria, familientzat informazio eskutitza.

# 1 eranskina

## EKIPOAK - HH 31 taldea

	EKIPOAREN IZENA:
EKIPOKO EMAILA: EKIPOKO TELEFONOA:	
Argazkia	IZENA: ABIZENA: E-MAILA: PRAKTIKAK:
IZENA: ABIZENA: E-MAILA: PRAKTIKAK:	Argazkia
Argazkia	IZENA: ABIZENA: E-MAILA: PRAKTIKAK:
IZENA: ABIZENA: E-MAILA: PRAKTIKAK:	Argazkia
Argazkia	IZENA: ABIZENA: E-MAILA: PRAKTIKAK:

## 2 eranskina

<b>Bilera zenbakia</b>	
<b>Bilera eguna</b>	
<b>Bilduak</b>	
<b>Bileraren iraupena</b>	
<b>Bileran landutakoaren laburpen txiki bat</b>	

## 3 eranskina: familientzako eskutitza ereduak

## 4 eranskina: familientzako eskutitza ereduak

Familia agurgarria:

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle talde bat gara, Donostiako Irakasleen Eskolakoak hain zuzen ere. Bigarren kurtsoko lehen lauhilekoan ditugun ikasgai guztientzat talde lan bat egin behar dugu, haur jolasari buruzko lan bat. Lan horretan zenbait argazki txertatu behar ditugu, eta, zuen baimena jasoz gero, zuen haurra ikasten ari den taldeari zenbait argazki atera nahi genizkioke jolasean dauden bitartean. Argazki horiek soilik eta bakarrik unibertsitateko lan horretarako erabiliko genituzke. Eskutitza hau bidaltzen dizuegu ahal bada zuen oniritzia jasotzeko. Talde lanari buruzko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, zuen esanetara gauzkazue sinaduran adierazitako telefonoan eta helbide elektronikoan.

Adeitasunez,

Taldeko baten izena eta abizenak

Tlf:

E-maila:

-----

Nik,..... jaunak/andreak, adinez  
nagusiak            (NAN            zenbakia:            .....),  
.....(r)en aita/ama edo tutore naizen aldetik,

*(adierazi zure aukera X batez)*

BAIMENA EMATEN DUT

EZ DUT BAIMENIK EMATEN

nire seme-alabari, berak hala nahi badu, unibertsitateko ikasleen talde lan baterako argazkiak ateratzeko.

Tokia eta eguna: .....(e)n, 20....(e)ko .....aren ..... (e)(a)n

Aitaren/amaren edo legezko tutorearen sinadura:



FAMILIA AGURGARRIA:

---

# Jolastuzgaratzen

ESTIMADA FAMILIA:

*IRAKASLEAK.*

*EL PROFESORADO.*

**EKINTZAK**

**ACTIVIDADES**



## 5 eranskina: moduluaren ebaluaketa orria ikasleentzat

---

- 1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue? (moduluko konpetentziak DILAN txostenean topatuko dituzue)
  
- 2) Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
  
- 3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
  
- 4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
  
- 5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?